



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Guk uste genuena eta gure ingurukoek eman dizkiguten aholku eta iradokizuekin, ezinbestekoa ikusi dugu erosotasuna eta kirola elkartzen dituen produktua sortzea. Gure ingurukoak oso kirolariak dira, baina batzuetan gimasia joateak denbora gehiegi eskaintzea, edo lotsatiak direla eta, kirola egiteari uko egiten diote. Askotan etxeko logela batean gimnasio bat jartzea pentsatu izan dute, baina, logela hutsik ez dutenez, ezin izan dute jarri. Horregatik, MIKNA, produktu ezinhobea da, erosotasuna eta kirola erraz egitea elkartzen dituelako.

MIKNA produktua, bereziki, etxebizitzan gimnasioa jarri ezin dezaketenean kirolarientzat zuzenduta dago. Gure armairuaren barnean aurkitu daitezkeen elementuak hainbat dira, eta zenbait helburu desberdin dituzten pertsonentzat zuzenduta egongo da, hala nola, osasunagatik kirola egin behar dutenentzat, lesio bat dela eta, gimnasioetan erreabilitazioa egin behar dutenentzat, kirolari amorratuentzat, beraien gorputza ongi ikusi nahi dutenentzat, eta horrela autoestima hobea izan dezaketeneantzat... dena eroso eta modu errazean eskainita.



Munduan zehar pertsona profil hauek daude, horregatik, gure produktua mundu guztian zehar egongo da eskuragarri; gure ustez, mundu guztian zehar behar hau dagoelako. Produktua mundu osoan zehar bera izango da, aldatuko den gauza bakarra, aholku eta ariketa desberdinak eskaintzen dituen liburuxkaren hizkuntza izango da. Hasiera batetik, munduko hizkuntza garrantzitsuenak jarriko ditugu, esate baterako: Gaztelania, Ingelesa, Frantsesa, Mandarina, Euskara... Horregatik, mundu osoko kirolarientzat dago zuzendua, entregak mundu osoan zehar izango direlako.



Gure produktua erosiko dutenak 25-55 urteko adin tartean kokatzen diren pertsonentzat dago gidatuta, etxe propio bat izan behar dutelako, non gure produktua jarri. Adin tarte honetan egiten du jende gehienak kirola, esaterako, fisikoki oso ondo daudelako kirola egiteko, eta aldi berean, osasuntsu mantentzeko gogoia daukatelako. Erosleak adin horretako jendea izanda, erabiliko dutenak gazteagoak ere izan daitezke, indarra entrenatzeko gogoz dauden gazteak; normalean beraien gurasoak erosiko dutela azpimarratzea nahitaezkoa da.

MIKNAREN prezioa ez da oso merkea izango, hala nola, gure produktuan kalitatea lehenesten dugulako, horregatik, ezin izango dute famili guztiek erosteko aukera izan, baina erosleek jakin behar dute, gure produktua inbertsio bat dela, adibidez, urte askotako gimnasioko txartela aurreztuko dutelako. Hori dela eta, erosleentzat ongi egongo litzateke batek baina gehiago erabiltzea, hortaz, pertsona bat baino gehiagoren gimnasioko agiria aurreztuko lukete.

MIKNA produktua erosotasuna eta kirola uztartzeko sortu da, etxean gimnasioa jartzeko aukerarik ez duten pertsonentzat irtenbide eraginkorra eskainiz. Kirola egiteko denbora edo lotsa arazoei erantzuten die, modu erraz eta erosoan. Gainera, publiko zabal bati zuzenduta dago, bai osasunagatik bai ongizate fisikoagatik kirola egin nahi dutenentzat. Prezioa altua izan arren, epe luzerako inbertsio erabilgarria da, gimnasioko kuotak aurrezteko aukera ematen duelako.